

IKASLEEN GIDA

Prestakuntza-jarduera

ATENTZIO SANITARIOAN ESKUEN HIGIENA ZAINZEARI
BURUZKO IKASTAROA



SARRERA

Atentzio sanitarioari lotutako infekzioak (ASLI) gaixotasun-zama handia izan ohi dira, eta eragin ekonomiko garrantzizua daukate mundu osoko pazienteengan eta sistema sanitarioetan. **Eskuen higie**ne onak –eskuak une eta modu egokian garbitzea izaten den zeregina erraza–, gaixotasun horiek prebenitzen lagun dezake eta, hortaz, biziak salbatzen. Ingurune asistentzial batean, asistentzia sanitarioko jardueratzat hartzen dira pazienteekin harreman zuzena edo zeharkakoa sorrarazten dutenak. Horrek esan nahi du eskuen higie

ne osasun arloko profesional guztiei dagokiela, euren lanpostua edozein izanda ere, zereginak betetzen ari direnean.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), bere “salba itzazu biziak, garbitu eskuak” kanpainaren baitan, Atentzio Sanitario

ko Eskuen Higie

neari buruzko Jarraibideak osatu ditu, ebidentzia zientifikoan oinarrituak, osasun-zentroi

ei laguntzeko hobeto gauzatu dadin eskuen higie

ne eta, horrela, ASLIak murriztea lortzeko. Hala ere, zenbait azterlanek erakutsi dute gorabeheratsua dela jarraibide horien betetze maila aztertutako erakunde bakoitzean; aldeak antzeman dira eskuen higie

ne burutzen den uneari eta erabilitako prozedurei dagokienez.

Adierazitako guztiagatik, nabarmena da profesional asistentzial guztiek behar dutela prestakuntza osoa eskuen higie

nearen garrantziari, "Eskuen higie

nerako 5 uneak" ereduari eta eskuak garbitzeko eta igurtzeko prozedura egokiei buruz.

Prestakuntza hori jarrera eta kultura arloetako aldaketa sortzera bideratuta egon behar da eta bermatzera horrela eskuen higie

neak erro sendoak dituela eta langile guztiek hartzen dutela aintzat. Prestakuntza oinarritzko osagaia da eskuen higie

ne gauzatzeko estrategia global baten aplikazio-fasean, haren funtsezko gainontzeko osagaiekin (sistema-aldaketa, ebaluazioa eta atzeraelikadura, orogarriak lantokietan eta segurtasun instituzionaleko giroa) nabarmen integratzen dena.

Ikaslearen GIDA

Hori guztia dela-eta, Osakidetza Pazientearen Segurtasuna programa korporatiboaren barruan, zure esku jartzen du **“Atentzio sanitarioan eskuen higiena zaintzeari buruzko ikastaroa”**.

Hain zuzen ere, hastekotan zauden online ikastaroa da, aurten Prestakuntzako Plan Korporatiboaren barruan dagoena.

Espero dugu prestakuntza-jarduera honek zure aurreikuspenak betetzea eta asistentzia segurua, eraginkorra eta kalitatekoa sustatzeari begirako jardunbide egokiak bultzatzea. Horixe baita osasun-sistemari eusten diozuenon eta sistema horren xede diren pazienteen nahia.

HELBURUAK:

Helburu orokorra da **motibatzea, atentzio sanitarioan eskuen higie zuzena egiten jarraitzeko edo hasteko, jokabide eta kultura mailako aldaketa sustatuta**, garbiketa horri dagokionez.

Ikastaroak, era berean, ikasleari honetarako aukera emango dio:

- ✓ Ezagutzea OMEren pazientearen segurtasunerako programaren aurrekariak eta pazientearen segurtasunaren aldeko lehenengo mundu-erronka
- ✓ Ulertzea atentzio sanitarioari lotutako infekzioen (ASLI) zama eta eragina.
- ✓ Identifikatzea atentzio sanitarioari lotutako patogenoen transmisio modu nagusiak, batez ere eskuen bidezko transmisioan arreta berezia jarrita.
- ✓ Interpretatzea atentzio sanitarioko eskuen higieari buruzko OMEren Jarraibideak eta haien estrategia eta aplikazio-tresnak: osasun-arretan eskuen higie zergatik, noiz eta nola egin.
- ✓ Eskuen higie aplikatzea ASLlen prebentziorako gako bezala.

NORENTZAT:

Osakidetza zerbitzu-erakunde sarean lan asistentzian aritzen diren profesionalak.

EGITURA ETA EDUKIAK:

Ikastaroa SEI modulutaz osatzen da:

1. modulua.- Sarrera.

2. modulua.- Atentzio sanitarioarekin erlazioa duten infekzioen definizio, karga eta inpaktua.

3. modulua.- Atentzio sanitarioarekin erlazioa duten mikroorganismoen igorpen mekanismo nagusiak.

4. modulua.- Atentzio sanitarioarekin erlazioa duten infekzioen eskuen higiena eta prebentzioa

5. modulua.- Zergatik, nola, zerekin, noiz eta non egin behar da eskuen higiena. Eskularruen erabilera.

6. modulua.- Atentzio sanitarioan eskuen higienerari buruzko OMEaren arauak.

IKASTAROAREN METODOLOGIA

Ikastaroa on line prestakuntza bidez egingo da; horretarako, plataforma batera sartuko dira ikasleak, eta han izango dituzte eskuragarri behar dituzten tresna guztiak, ikasleak zer aurrerapen egin duen uneoro jakiteko.

Sei moduluak jasotzen duten informazioa, pdf formatuan jaitsi daitezkeen dokumentuez dago osatuta, eta baita ikastaroaren oinarritzko edukiei lotutako beste dokumentu eta webei buruzko esteka eta erreferentziaz ere.

Zalantzarik izanez gero, ikastaro honetan garatutako kontzeptu, tresna edo edukiekin lotutakoak, edo ekarpen edo iradokizunen bat egin nahi badu, pazientearen segurtasunaren arloko eguneroko jarduerari buruzkoa, ikasleak kontsulta egin ahalko dio bere erakundearen arlo horretako erreferentzia denari. Hurrengo helbide elektroniko honetara ere jo dezake:

GUNE.SEGURUA@OSAKIDETZA.NET

PLANGINTZA

Ikastaroa **2014ko irailaren 29an** hasiko da.

Azken ebaluazioa egiteko azken eguna **2014ko urriaren 27a** izango da.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ikastaro honetan etengabeko ebaluazioa egingo da, eta hau hartuko da kontuan: edukiak ikastea eta azken ebaluazioa gainditzea.

Ikastaroa gainditzeko eta egiaztagiria lortzeko gutxienerako irizpideak hauek dira:

- Ikastaroko **multimedia edukien** %100 landu eta ikastea.
- Modulu bakoitzaren amaierako testa gainditzea.
- Ikasgelan jarriko den azken ebaluazioa gainditzea. Horretarako, ikasleak **HIRU saialdi** izango ditu **20 galderako** azterketa bat egiteko, eta, **gutxienez, %80** asmatu beharko ditu. Saialdi bakoitzean, aldatu egingo dira galderak.

Irizpide horiek gainditzen dituzten izangaiak **GAI** izango dira, eta **Egiaztagiria** jasoko dute.

Behin bukatutakoan, ikasleak ikastaroari buruzko alde nabarmenenei buruzko ebaluazio galdetegi bat dauka bere esku. Tutoretzei buruzko galderak, **ikasleei laguntzeko taldearen lanaren** balorazioari buruzkoak dira.

IKASLEEI LAGUNTZEKO TALDEA

- **Laguntzarako erreferenteak eta harremanetarako bideak:**

Zalantzarik izanez gero, ikastaro honetan garatutako kontzeptu, tresna edo edukiekin lotutakoak, edo ekarpen edo iradokizunen bat egin nahi baduzu, **eskuen higienearen** arloko zure eguneroko jarduerari buruzkoa, helbide honetara jo dezakezu:

GUNE.SEGURUA@OSAKIDETZA.NET

Eta gogoan izan etengabeko laguntza izango duzula arlo horretan zure erakundearen **erreferenteak** direnen aldetik. Ondoko zerrendan duzu beraiekin harremanetan jartzeko modua:

AKUTUEN OSPITALEAK	IZENA	TELEFONOA	MAIL
AUO - Txagorritxu	JUAN JOSÉ JARAS BARTOLOMÉ	945 007197	JUANJOSE.JARASBARTOLOME@osakidetza.net
AUO - Santiago	ISABEL ORIO COCA	945 007775	ISABEL.ORIOCOCA@osakidetza.net
Donostia UO	JOSÉ RAMÓN SÁENZ DOMÍNGUEZ	943 007000	IOSERAMON.SAENZDOMINGUEZ@osakidetza.net
Gurutzetako UO	JESÚS DELGADO NARANJO	94 46006000	JESUS.DELGADONARANJO@osakidetza.net
Bilbao-Basurto ESI	ITZIAR ATUTXA AURTENETXE	94 40006000	MARIAITZIAR.ATUCHAAURTENECEHE@osakidetza.net
Barrualde-Galdakao ESI	AGURTZANE GOIKOURIA ALDAPE	94 40007205	MARIAROSARIO.GOICURIAALDAPE@osakidetza.net
Barrualde-Galdakao ESI	ROSA MARÍA AÑEL RODRIGUEZ	94 6007200	ROSAMARIA.ANELRODRIGUEZ@OSAKIDETZA.NET
Barakaldo-Sestao ESI	ANA DE PRADO BASTERRICA	94 4006700	ANAMARIAISABEL.PRADODEBASTERRICA@osakidetza.net
Debagoieneko ESI	MAITANE MENDIZABAL LARRAÑAGA	943 035300	MAITANE.MENDIZABALLARRANAGA@osakidetza.net
Bidasoako ESI	MAITEDER ELOSEGUI MENDIZABAL	943 007743	MAITEDERMATALE.ELOSEGUIMENDIZABAL@OSAKIDETZA.NET
Bidasoako ESI	HORTENSIA ESPARZA MUÑOZ	943 007743	MARIAHORTENSIA.ESPARZAMUNOZ@OSAKIDETZA.NET
Debabarreneko ESI	JORGE TABOADA GÓMEZ	943 002800	JORGE.TABOADAGOMEZ@osakidetza.net
Goierrri-Urola Garaiko ESI	ITZIAR LANZETA VICENTE	943 005000	ITZIAR.LANZETAVICENTE@OSAKIDETZA.NET
SUBAKUTUENTZAKO OSPITALEAK			
Santa Marina Ospitalea	BEATRIZ PACHO MARTÍN	944 006900	BEATRIZ.PACHOMARTIN@osakidetza.net
Gorlizko Ospitalea	M.TERESA URIARTE GARCIA	94 4006600	MARIATERESA.URIARTEGARCIA@osakidetza.net
Lezako Ospitalea	ALEJANDRA ORIVE BREA	945 006900	ALEJANDRA.ORIVEBREA@osakidetza.net
ESKUALDEAK			
Arabako Eskualdea	GUILLERMO AGUIRRE LEJARCEGUI	945 006730	GUILLERMO.AGUIRRELEJARCEGUI@OSAKIDETZA.NET
Ezkerraldea Eskualdea	PATRICIA ZABALLA ERICE	94 6007590	PATRICIA.ZABALLAERICE@OSAKIDETZA.NET
Uribeko Eskualdea	ROSARIO GONZÁLEZ MACHO	94 6007005	ROSARIO.GONZALEZMACHO@osakidetza.net
Gipuzkoa Eskualdea	JAVIER BASTERRETXE PEÑA	943 006418	FRANCISCOJAVIER.BASTERRECHPEÑA@OSAKIDETZA.NET
OSASUN MENTALA			
Arabako OMS	ANA AUDICANA URIARTE	945 006525	ANAROSARIO.AUDICANAURIARTE@OSAKIDETZA.NET
Bizkaiko OMS	AINHOA VALENCIANO GONZÁLEZ	94 4705247	AINHOA.VALENCIANOCONZALEZ@osakidetza.net
Gipuzkoako OMS	MAITE BASTIDA LOINAZ	943 006066	MARIATERESA.BASTIDALOINAZ@osakidetza.net
EMERGENTZIAK			
Emergentziak	ISABEL VIRTUS ALDANONDO	94 4007474	MARIAISABEL.VIRTUSALDANONDO@osakidetza.net

➤ **Laguntza teknikorako zerbitzua:**

Zerbitzu honekin telefonoz edo emailez jarri ahalko da harremanetan, ikastaroan sortu daitekeen edozein arazo tekniko bideratzeko:

 **openaula****944.245.000**

(Astelehenetik ostiralera
8:00etatik 18:00etara).

SARBIDEA IKASTARORA:

1. Jo ezazu helbide honetara zure Interneteko nabigatzailearen bitartez:

<http://osakidetza.openaula.net>

2. Idatz itzazu posta elektronikoan jaso dituzun erabiltzailea eta pasahitza:
3. Sakatu hemen: **“Atentzio sanitarioan eskuen higiena zaintzea”** ikastaroan sartu.

<http://osakidetza.openaula.net>

FAQak

Edozein nabigatzaile erabil dezaket ikastaroa egiteko?

Prestakuntza-plataforma hau optimizatuta dago Internet Explorer nabigatzailearekin lan egiteko (eta horixe gomendatzen dizugu); hala ere, beste edozein nabigatzaile erabil dezakezu (Mozilla Firefox, Safari edo Google Chrome).



Zer baliabide informatiko behar ditut ikastaroa egin ahal izateko?

Jarraian, zerrenda batean agertzen dira ikastaroa egiteko behar diren Hardware eta Softwareko betekizun teknikoak:

- PCa, Windows 98 SE edo goragokoarekin. Macintosh OS,...
- 1024 x 768 pantaila-bereizmena
- Internet Explorer 6 edo goragokoa, Mozilla Firefox, Chrome, Safari. JavaScript aktibatua. Cookiak gaituta. Elementu emergenteen blokeatzaileak desgaituta. Plugin Macromedia Flash 7 edo goragokoa. Adobe Acrobat Reader.
- Internetekiko konexioa.
- FLASH-bertsio eguneratua instalatu behar duzu. Zure sistemak ez badauka, jo ezazu ADOBEren web-era instalatzeko **[SAKATU HEMEN FLASH Player INSTALATZEKO]**.
- ADOBE Acrobat Reader ere behar duzu, PDFko artxiboak deskargatu eta bistaratzeko. **[SAKATU HEMEN zure Adobe Reader EGUNERATZEKO]**.
- Ikastaroak zenbait bideo ditu. Ikusteko arazoren bat baduzu, jarri harremanetan Ikasleen Arretarako Zerbitzuarekin, 944 245 000 telefonoaren bidez, edo info@openaula.com helbide elektronikora mezu bat bidaliz.

INFORMAZIO INTERESGARRIA

Sartzeko web-helbidea

<http://osakidetza.openaula.net>

Sartzeko gakoak:

Idatz itzazu posta elektronikoan jaso dituzun erabiltzailea eta pasahitza (Berdin da hizki larriz edo xehez idaztea).

Sartzeko bideak:

INTERNETekiko konexioa duen edozein nabigatzailetatik.

Ikastaroa ordenagailu desberdinetatik egin daiteke, ikasle bakoitzaren estatistikak eta emaitzak grabaturik baitaude.

Adi: Zure sistema sare korporatibo baten barruan badago, baliteke, softwarea instalatzeko, sarearen administratzaileari jakinarazi behar izatea. Hala bada, jarri harremanetan Erabiltzaileari Arreta emateko zure zentroarekin, edo zerbitzu hauek ematen dizkizun pertsonal informatikoarekin.

Aplikazioak ADOBE web ofizialetik instalatzea ez da arriskutsua edo eragozgarria zure sistemarako, ezta zuk lan egiten duzun sarerako ere.

“Erabiltzaile” eta “pasahitz” gakoek ez dute funtzionatzen. Zer egin dezaket?

Zure gakoak erabilia ikasgelara sartu ezin bazara, saiatu urrats hauei jarraiturik:

- **Egiaztatu idazten dituzun gakoak benetan direla ikasgelara sartzeko eman dizkizutenak.** Berdin da hizki larriz edo xehez idaztea.
- Baliteke mezu elektronikoren batetik kopiatu edo itsatsi izana, nahi gabe tarte zuriren bat txertaturik. **Saihestu “kopiatu eta itsastea”, eta idatzi ESKUZ.**
- Batzuetan, zuzenak ez diren gakoak sartzen direnean, zure nabigatzaileak bere kaxe-memorian gordetzen ditu eta, zuzen idatzi arren, errorea ematen jarraitzen du. Kasu hauetan, sartzen ez uzteaz gain, sarrera-pantailak honelako mezuak erakutsi ohi ditu: “ez da ikastarorik aurkitu”, “berririk gabe”... **Horrelakoetan, zure nabigatzailearen kaxe-memoria garbitu beharko duzu, honela:**
 - Itxi zabalik duzun nabigatzailea eta ireki beste bat.
 - Idatzi berriro zure ikasgelako helbidea: <http://osakidetza.openaula.net>
 - Freskatu zure nabigatzailea F5 tekla zenbait aldiz sakatuz (tekla hori zure teklatuaren goiko aldean duzu). Saiatu orain.
 - Arazoa konpontzen ez bada, joan menu honetara: “Tresnak” >> “Internet aukerak” >> eta garbitu “historia”, “aldi baterako artxiboak”, “cookieak”... Inoiz egin ez baduzu, garbitze-prozesu honek 1-2 minutu iraun dezake. Eta lasai egon, zeren eta ezabatzen ari garena ez baita garrantzitsua zure sistemaren funtzionamendurako.
 - Firefox nabigatzailean, joan menu honetara: “tresnak” >> “Garbitu azken historia”.
 - Kaxe-memoria garbitu ondoren, zure gakoek ondo funtzionatu beharko lukete. Saiatu orain.

Arazoa konpontzen ez bada, deitu Ikasleen Arretarako telefono-zenbakira: **944 245 000**

Nola editatu dezaket niri dagokidan informazioa?

Plataformara zure gakoekin sartzean, **Nire profila** aukera duzu; bertan, zure datuak aldatu ahal dituzu, kontuan hartuta datu hauek jendaurrean izango direla ikastaroan: zure argazkia, aurkezpena, posta-sinadura...

